

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Zerga-bilketa likidoa % 3 igo da abuztura arte

Sozietate zergagatiko bilketa 16,6 milioi jaitsi da, Gobernu Zentralaren deskontu fiskalarengatik zati handi batean

Asteazkena, 2016.eko irailak 28

Nafarroako Zerga Ogasunak 2016ko abuztura arte 1.782.613.465 euroko zerga-bilketa likidoa [erregistratu](#) du. Zifra hori, itzulketak diru-sarrerei kenduz kalkulatzen dena, % 3,02 hazi da iazko epe berean bildutakoarekin alderatuz, hau da, 52.263.091 euro gehiago.

Zehazki, bilketa likidoa zerga zuzenengatik nahiz zeharkakoengatik hazi da. Lehenengoa % 1,83 igo da, 881 milioiraino (15,8 milioi gehiago); eta bigarrena, % 4,49 gehiago, 881,2 milioiraino (37,9 milioi). Gainerakoa, 1.782,6 milioiraino, tasa, errekaratu edo zehapenengatik diru-sarrerak osatzen dute.

Zeharkako zergen barnean, PFEZ bidezko zerga-bilketa likidoa % 5 inguru hazi da, % 4,96 zehazki, 733 milioiraino; 34,7 milioi, 2015eko zerga-erreformak aplikatutako lan-atxikipen handiengoengatik, 48,6 milioi igo direnak, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilari Mikel Aranburuk azaldu duenez: Aranburuk prentsaurrekoa eskaini du sozietateen gaineko zergagatiko bilketa ixten dela eta.

Zerga horri dagokionez, sozietateena, Ogasunak 77,95 milioi euro bildu du, 2015ean baino 16,6 milioi gutxiago. Aranburu kontseilariak aldaketa negatiboa (-% 17,85) hiru faktoreri egotzi die. Alde batetik, kontuan ordaintzeko diru-sarrerak % 53 jaitsi dira (9,5 milioi) Gobernu zentralak sustatutako deskontu fiskalaren ondorio gisa eta zifra erlatiboan zergak ordaintzen dituzten enpresei eragiten diena, hau da, Nafarroan daudenak baina estatuko araudiarekin ordaintzen dituztenak zergak. Gainera, Zerga Ogasunak 2,3 milioi euro gutxiago jaso du (% 5,03ko jaitziera) kuota diferentzialean, aurreko Gobernu zerga-erreformaren ondorioz sortutakoa, Aranburuk azaldu duenez. Eta beste 4,8 milioi gutxiago (-% 15,71) kapital atxikipenetan, eta bertan burtsako fluktuazioek edo funtsen errentagarritasunak, esaterako, eragin handia dute.

Zeharkako zergei dagokienez ere, ondarearen gaineko zergaren bilketa likidoak izandako % 34,86ko jaitziera ere aipatu behar da (2015ean, berriz, 24,8 zen), 2014ko deskontu fiskalaren ondorioz. Ogasunari



Ogasuneko bulego bat.

itzultzeko bigarren epea aplikatu ondoren, azaroan, 14 milioiko jaitsierara helduko da.

Oinordetza eta dohaintzengatik bilketa likidoa ere % 23,8 jaitsi da, eta 30 milioitan geratu da; egoiliarak ez direnen errentaren gaineko zerga % 7,82 jaitsi da.

Azalera handien gaineko zergan 3 milioi euro bildu dira 2014 eta 2015 urteei dagokienez; 2015eko epe berean, 1,6 bildu zen. Gogoratuko denez, zerga hori indargabetu egin da ondorioak 2016tik aurrera izanik.

Kapitulu horretan Estatuarekin harmonizatutako beste zerga batzuk ageri dira, eta ordainarazpena Nafarroari dagokio: kreditu entitateetako gordailuen gaineko zerga (4,4 milioi bildu dira irailera arte), loteriako sarien gaineko karga (3,9 milioi) eta energia elektrikoaren ekoizpeneko balioaren gaineko ordainketa zatikatua (7,6 milioi).

% 7,4 gehiago BEZaren bidez

Zeharkako zergetan, BEZaren bidez bildutako diru likidoa % 7,42 handitu da (578,8 milioiraino), Estatuarekiko doikuntzen bidez diru-sarrerara gehiago izateagatik (% 15,6); izan ere, kudeaketa zuzena % 6,88 jaitsi da, esportazioek izandako bilakaera positiboari lotuta, Ogasuneko datuen arabera (Nafarroako BEZa itzultzen du), % 6,7 igo direnak 2016an. Bestalde, barneko eragiketak (Espainia barnean) % 2,5 hasi dira.

Zerga berezien bilketan (alkohola, garagardoa, garraioa, elektrizitatea...) 10,2 milioi gutxiago jaso da (% 3,88), eta 254 milioitan kokatu da.

Metatuan duen garrantziagatik, Hidrokarburoen zerga berezia aipatu behar da, eta haren diru-bilketa % 1,07 hazi da (1,75 milioi) 164,2 milioirano heldu arte; eta baita Tabakoarena ere, % 2,08 igo dena (1,83 milioi), 89,77 milioiraino iritsi arte. Alkoholengatik 29,6 milioi bildu dira, % 2,38 gutxiago; eta elektrizitate-zergagatik 14,2 milioi, % 8,44 gutxiago. Bestalde, Nafarroako Estatuari fabrikazioko zerga berezien doikuntzen bidez ordaindutakoa, 2015eko epe berean egindakoa baino %3 3,83 gutxiago izan da (11,9 milioi).

Gainera, zeharkako zergen kapituluan, ondare transmisio bidezko zerga nabarmendu behar da, 28,42 milioi bilduta (2015ean baino % 8,6 gehiago).

Abuztura arteko zerga-bilketa likidoaren koadroa III. kapituluarekin osatzen da, tasengatik diru-bilketari dagokiona (7,47 milioi) eta errekaru, zehapen eta berandutzako interesei (12,92 milioi), % 3,57 eta % 8,05 jaitsiz iazko epe berarekin alderatuz. Guztira, 1,47 milioi gutxiago.

Ehunekoak

Zehazki, abuztura arte, era likidoan jasotako 1.782,6 milioitatik abuztura arte, % 49,4 zerga zuzenak dira; beste % 49,4 zeharkako zergak; eta gainerakoa, % 1,2, tasa, errekaru, zehapen eta atzerapenengatik diru-sarrerak.

Zergen izenei dagokienez, abuztura arte, PFEZ diru-bilketaren % 41 da; BEZa, % 32,4; zerga bereziak, % 14 eta sozietateen gaineko zerga, % 9,9.